

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ERRIBERABEITIKO UDALA

#### **Behin betiko onespena ematea "AI-I10/S.1 Araba Parke Fotovoltaiko izeneko sektorea urbanizatzeko jarduketa programa"ri**

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 156.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta ez denez alegaziorik aurkeztu iragarkia 2019ko apirilaren 8ko ALHAOn (43. zk.) argitaratu osteko informazio publikoko epean, 2019ko maiatzaren 29ko 160/2019 Alkatetza Dekretuari jarraikiz, behin betiko onespena eman zaio "AI-I10/S.1 Araba Parke Fotovoltaiko izeneko sektorea urbanizatzeko jarduketa programa"ri. Hona hemen programaren edukia, laburbilduta:

Eremuari buruzko datuak: AI-I10/S.1 sektoreak 551.275 m<sup>2</sup>-ko azalera du. Mugak: iparraldean, AP-1 autopista; hegoaldean eta ekialdean, Madril-Irun trenbidea, eta mendebaldean, AP-68 autopista.

Sailkapena eta kalifikazio urbanistikoa: Lurzoru urbanizagarri gisa dago sailkatuta, kalifikazio honekin: erabilera industrial, baliabide fotovoltaikoen bidez energia elektrikoa sortzeko, bai eta horrekin lotura duten erabilerak ere.

Hirigintzako eraikigarritasuna: 7.500 metro koadro eraiki.

Jarduketa sistema: Hitzarmen sistema, sektore osoa hartzen duen egikaritze unitate bakarrean.

Urbanizazio obrak gauzatzeko aurrekontua: 1.319.120,35 euro (milioi bat hirurehun eta hemezortzi mila eta ehun eta hogeita euro eta hogeita hamabost zentimo).

Obren programazioa: Urbanizazio obrak urbanizazio proiektua behin betiko onesten denetik hiru hilabete igaro baino lehen hasi behar dira, eta guztira sei fasetan eta zortzi hilabetetan egingo dira.

Ribabellosa, 2019ko ekainaren 5a

*Jarduneko alkatea*

**MIREN SANTAMARÍA MARTÍNEZ**